

⇒ Hizpide ⇒

Ganbara astintzen

Mikel Ayerbe eta Ibon Egaña



«Nerabezarokoak omen dira memorian gehien irauten duten irakurketak, eta mahats-mordoko aleak bezala pilatzen zaizkit gogoan nerabe nintzela irakurri nituen liburuak».¹ Nerabezaroa baino lehen ere, literaturaren xarmak uzten du aztarnarik, ordea. *Behinola* aldizkariaren 3. zenbakian² hainbat idazle, editore eta itzultzaileri haurtzaroen eragin gehien ekarritako pertsonaia literarioen inguruan gogoeta eginarazi zitzairen. Erantzunen artean, «lehen haurtzaroko sentsazio hura ez zait memoriatik aldendu» edo «lehenbiziko zirrara ahaztezin hura» bezalako aipamenak biltzen ziren. Hala ere, erantzunen artean bazen gogoeta bat hona ekartzea merezi duena, hain zuzen, Juan Kruz Igerabideren erantzunaren amaierako galdera: «berpiztuko ote da inoiz zirrara hura?».



Gasteizen iaz antolatu zen «Literaturaren bideak etorkizunean» mahai-inguruan, Patxi Zubizarretak bere irakurle esperientziatik abiatuta, aurreko galderari erantzun zion nolabait:

«*Obabakoak* irakurri zuen gazte hark eta irakurle honek ez dute zerikusi handiegirik, eta gaur egun, *Obabakoak* liluraz beterik irakurri zuen irakurle honek lilura hori apenas topatzen duen inon».³

Nerabezaroaz ari da Zubizarreta, baina Irati Jimenezek haurtzaroko irakurketak erabiliko ditu gauza bera adierazteko:

«Txikitan hain zen erraza. Hitz egiten zuen arrainaren ipuina gustatzen zitzaidan eta hori eskatzen nuen, behin eta berriz. [...] Beharbada, orduan asmatzen dugu, txikitan. Beharbada, liburu bakar batek hunkitzen gaitu eta horrexen bila goaz beste liburu batzuetan».⁴

Kontu honek guztiak izango du zerikusirik, historikoki kontzeptu berria izanik ere, haurtzaroaz oro har eraiki den irudi idealista eta utopikoarekin. Peter Pan-en sindromea, baina, kasu honetan, Peter Pan irakurzale bat irudikatu beharko litzateke.

Bestalde, ziurrenik ez da kasualitatea hemen izen-abizenekin aipatu direnak idazleak izatea eta, agian, haurtzaro-nerabezarotik liburuez gordetzen dituzten oroitzapenek eraginik izatea afizioa ofizio bihurtzeko bide horretan. Horregatik, ariketa interesgarria da edonori galdetzea, baita egun liburu formatuan ezer irakurtzen ez duenari ere, ea liburuekin haurtzaro-nerabezaroan izandako esperientzia nola gogoratzen duen.

Edonola ere, haur edo gazte izanik, helduaroan ez bezala bizi dugu liburuekiko miresmena, irakurzaletasuna edo literaturaren lilura. Izango da, irakurle bakoitzaren irakurketa moduak etengabe aldatzen direlako, eta gauza guztietan bezala, lehendabiziko aldiek eragiten duten kitzikapenagatik. Sarritan, literatur liburuak berak baino, irakurtzeko moduaren erritu kutsuak utziko du aztarna ezabaezina irakurlearengan: gurasoen aginduei muzin eginik, manta azpian linternarekin irakurtzea; amonarekin egunero irakurketa saioak egitea; buruz jakin arren, behin eta berriz liburu berberak irakurtzea... Inozo bat zera esatera ere irits liteke: umetako liburuaren oroitzapen bikainak ezingo dizkiola ezta alzheimerrak ere ezabatu...

* * *

Eta hor dago, 80ko hamarkadaren hasieran jaiotako irakurle porrokatua bere haurtzaroko eta nerabezaroko liburuez gogoeta egiten, ganbarara igo eta garai hartako liburuen aurrean nostalgiaz baino zerbait gehiagoz hunkituta. Beste Peter Pan irakurzale bat. Ezein idazleren hitzak errepikatu gabe ere, badakielako haur edo gaztetan irakurritako liburuen oroitzapenek balio berezia dutela berarentzat ere. Eta hausnartzen hasten da, bere liburu zahar esanguratsuenei hauts apur bat kendu eta bata bestearen atzetik eskuratzen.

Egia esan, hunkitu zuten liburuetako bakar batzuk baino ez ditu eskura, irakurri zituen gehienak bereak ez zirelako, eskolako irakurketa orduetan liburuak trukatzeko zituztelako, amak liburuak erosi beharrean liburutegira bidaltzen zuelako «han nahi dituzun liburu guztiak daude!» esanez eta «gainera doan!» berekiko gordez, liburu asko eta asko arreba txikiak apurtu

1. Lertxundi, Anjel (2009), *Eskarmentuaren paperak*, Alberdania, Irun, 238. or.
2. «Hitzordu», *Behinola* 3. zenbakia, 2000-11, 32-43 or.
3. «Literaturaren bideak etorkizunean» Gasteizen, *Beterriko Liburua aldizkaria*, 44. zenbakia.
4. Jimenez, Irati, «Irakurle onanistak» in *Berria* (2010-02-21).





zizkiolako, beste asko ez dituelako gorde ere egin... Orotara, berrogeita hamar bat liburuk osatzen dute haren haurtzaro-nerabezaroko irakurgaien liburutegiko apala. Eta lurrunduta bada ere, banan-banan gogoratzen ditu liburu bakoitzeko istorio, pertsonaia, gertakari eta pasarte apurrak, eta liburuak aurrean izanik, harritu ere egiten da zenbait xehetasunekin gogoratzen denean.

Gogoan du nola Teorekin orduak eta orduak eman zitzakeen, marrazki xalo beti berberak behin eta berriz ikusiz norbaitek irakurtzen edo kontatzen zion istorioari jarraitu bitartean. «Axut» saileko ipuinak oso presente ditu, *Makilakixki*, *Patxi errementaria* edo *Sorgin gaiztoa* kasu (oraindik bizkarrezurrean hotzikara eragiten dio buruan orratza sartuta zuen usoaren irudiak). «Siberia treneko ipuinak» sailarekin ere akordatzen da. Geroago, Elkar argitaletxeko «Perkax» saileko aurreneko liburuak irakurri zituen konpultsiboki. Oraintxe bertan, *Pottoko*, *Xiker begi-gorria* eta *Botila baten historia* berrirakurtzeko gogoia piztu zaio, liburuak oraindik ere garai bateko lilura hari eutsiko ote dioten jakiteagatik bakarrik. «Sor» saileko *Pernando amezketarra* bezalako aleak irakurritz ahozko tradizioetik edan zuen asko konturatu gabe, gogoan duen arren, liburu horiek ez zirela bere gustukoena, nahiz eta *Igarkizunak* liburuarekin etengabe jolastu. «Itzul» sailarekin atzerriko idazleen liburuen itzulpenak heldu zitzaizkion –baina orain zalantzak ditu berak hori orduan ba ote zekien–, izan ere, berak izenburuak eta ipuinak gogoratzen ditu, *Nikolas Txiki*, *Ketxusen zooa* edo *Tarta hegalaria*, besteren artean. Aparteko aipu bat merezi du *Eskubeltz taldearen abenturak* liburuak, detektibe gaztetxo batzuen abenturak kontatzen zituena eta eskuineko orrialdeetan marrazki-

asmakizun gisakoak proposatzen zituena, eta, ondoren, erantzuna hurrengo orrialdeko testuan ematen zena. Ganbarako lur ez oso garbian eserita, seguru dago liburu horrek baduela loturarik berriki komiki eta irudi-eleberriak irakurtzeko sortu zaion zaletasunarekin. Orain, berriz, Anjel Lertxundiren *Madame Kontxexiren* liburu bat eta Enid Blyton-en *Bostaken* beste liburu bat konparatzen ari da, eta bi liburuen artean dagoen jauzia aurreneko orrialdeetan liburu sinatzeko moduan bertan nabari daitekeela igarri du: batean, izena haur-idazkeraren bereizgarri den letra larriz ageri delako; eta bestean, jadanik, izen-abizenak idazteko moduan nabari daiteke bere burua berretsi nahi duen nerabe baten aurrean gaudela. Bazekien bai, ganbarako apaleko 50 liburuetatik 9 liburu *Bostak* sagakoak zirela, eta horrek jada nahikotxo esaten du nerabezaroko bere irakurketzeko ohiturei buruz. Eskolan derrigorturik irakurri beharreko liburuen gainean ere gogoeta egin dezake, baina pentsatu du nahikoa dela, luzatzen ari dela, eta autobibliografiak, autofikzio-ariketa merkeak edo dena delako atzera begirada afektibo literario horrek berarentzat bakarrik duela hainbestearainoko garrantzia. Berekiko pentsatzen du, lagunartean zenbat aldiz atera duten hizpidera haurtzaroko marrazki bizidunen gaia, *Dotakon*, *Arturo erregea*, *Arale* eta beste hainbat marrazki bizidun euforikoki gogoratzean. Tamalez, taldeko nostalgia, ariketa hori inoiz ez dute egin haur eta gazte literaturako eta gazte literaturako liburuekin. Eta jakin badaki, horrelako erreferentziak elkarbanatzeak –marrazki bizidun, musika-talde eta liburu antzekoak garai bertsuan ikusteak, entzuteak eta irakurtzeak kasu–, bihurtzen duela bera belaunaldi jakin bateko partaide, garaiari dagokionez behintzat.

* * *





Egun, afzioak eta ofzioak bideratuta, literatur lanen irakurketarekin zaletzen hasi zen garaiari ikuspegi akademikotik ere begiratzen dio, ez soilik modu afektiboan. Liburuetatik irakurrita jakin du «1980az geroztik, euskal Haur eta Gazte Literaturaren aro berria hasi ze[la], aldaketa kuantitatiboak baina batik bat kualitatiboak gertatu baitziren». ⁵ Horrela, norbaitek garai hartako produkzio kopuruaren gorakadari erreparaturuz gero, eskaintzaren eta eskariaren kopuru-ugaltze horren arrazoia hainbat faktorek eragindakoa izan zela jabetuko da: hezkuntza-sistemaren errotzea, euskararen normalkuntzan literaturak izan duen garrantzia, argitaletxe jakinen apustua... Baina, esan bezala, bilakaera kualitatiboa izan zen esanguratsuen, Anjel Lertxundiren *Tristeak kontsolatzeko makina* (1981), Bernardo Atxagaren *Chuck Aranberri dentista baten etxean* (1982) eta Mariasun Landaren *Txan fantasma* (1984) bezalako lanek euskal Haur eta Gazte Literatura modernoaren sorrera markatu baitzuten. Liburu horiek eta gisakoek, adituek seinaturiko honako ezaugarri berritzaile hauek lituzkete: «baliabide literarioak, irakurleengan efektu literarioa pizteko asmoz; hizkera literarioaren lehentasuna; eta gaur egungo gaiak, hots, geure barne-sakontasuna, geure beldurrak, geure arazoak, komunikazio edo maitasun falta...». ⁶

Dena den, hutsuneak ere izan zituen garai hark, eta hori datorkio gogora haur edo gaztetan poesia-libururik izan ez zuela pentsatzearekin batera –une horretan, antzerki lanez gogoratu ere ez da egiten–. Gauza bera dio album ilustratu eta liburu-albumez ere, geroago etorriko ziren albumekin konparatuz Teok historiaurreko pertsonaia bat zirudielako. Euskarriei dagokienez, berrikuntzak aurkezten dituzten libururik ere ez zuten berak ezagutu, orriak pasa eta bat-batean sortzen diren gazteluak,





5. Lopez Gaseni, M. eta Etxaniz Erle, X. (2005): *90eko hamarkadako euskal haur eta gazte literatura*, Pamiela, Iruñea, 25. orr. 80ko zein 90eko hamarkadako Euskal Haur eta Gazte Literaturaren azterketa zehatzagoen berri izateko, ikus aurreko oin-oharretan aipaturiko erreferentzia zein Etxaniz Erle, X. (1997): *Euskal haur eta gazte literaturaren historia*, Pamiela, Iruñea.
6. *Ibidem*, 26 orr.

jolas-parkeak eta bestelako irudiak dituzten liburu horiek gogoan, edo baineran sartzeko liburuak ikusten dituenean aireporturen bateko Imaginarium dendaren batean. Eta gogoeta horiek buruan, ez da harritzen egun Kroko pertsonaiaren liburuak fenomeno bat bihurtu izana oraindik irakurtzen ez dakiten haurtxo txikiaren artean.

* * *

Umetako liburuak ganbaran gordetzearekin batera utzi zion irakurleak haur eta gazte literatura irakurtzeari. Bestelakoek kitzikatu zuten



nerabezaroan. Hamasei-hamazazpi urterekin *Etiopia* Ruper Ordorikaren ahotsean deskubritzeak eragindako zirrara etortzen zaio gogora, nahita ere berritu ezin duen hotzikara bizkarrean behera. Umekeriak ziren ordura arteko guztiak, denbora-pasa hutsa. Beste mundu bat zabaldu zitzaion aurrean gauetik goizera, eta ez du geroztik mundu hartatik atera nahi izan. Hotzikara hura biltzen du kantu eta liburuetan, jakinda ez duela atzera sentituko.

Ustekabean eta nahi gabe bezala azaldu zitzaion berriro irakurleari haur eta gazte literatura begien aurrera, zenbait urtetan beretzat ikusezin izan ostean, bat-batean opako bihurtu balitz bezala. Eta agertu ere zaletasun arruntak sortzen ez diren moduan agertu zitzaion, modu oso arrazional eta akademikoan. Gogoan du bat-batean, unibertsitate irakasleek eta literatur kritikariek haur literatura ikusarazi ziotela: hura estimatu beharraz zihardutela, testu haietan «benetako» literatura gordetzen zela esanez, helduen literaturakoak baino hobek omen zirela egile eta obra batzuk. 2000. urtearen muga gainditua zen, eta literaturaren ideia bera

ordura arteko kontzeptzio purista galtzen hasia zela zirudien gurean ere. Literatura femeninoaz hitz egiten zen, gay literaturaz, komikiez, edo haur literaturaz, literaturaz hitz egiteari utzi gabe.

Hala hurbildu zen irakurlea, komikietara bezala demagun, haur literaturara; garaitsuan literaturaren kanonean lekutxoia egina zuten egileak (orduan eskuratu zuen Mariasun Landak Espainiako Sari Nazionala) berrezagutu zituen lehenik; haurtzaroko *Txan fantasmaren* egilearengana itzuli zen irakurlea 20 urteak beteta, edo Bernardo Atxagaren haur literaturako lanetara. Pixkanaka, icebergaren punta horren oinetan zegoen itsasoan sartu zuen hanka bat, beldurrez eta jakin-minez, onerako eta txarrerako. Urruneko lilurak nekez irauten du-eta bere horretan behin gerritik gora busti ondoren.

Literaturarekiko lilura berritu zitzaion berriz, urteen buruan berriro maitemintzen denaren grina eta distantziarekin. Haurraren begirada berreskuratzek liluratu zuen bereziki, munduari naiftasun horretatik berriro begiratzeak; baina begiradak ez ezik aurkitu zituen tematikek ere eman zioten atentzioa irakurleari: ez zuen gogoan ganbarara igo zituen liburuetan orain irakurtzen zituen liburuetakoa gaiak aipatzen zirenik (heriotza, gaixotasuna, diferentzia kulturala, drogak, sexua...). «Errealismo kritikoa» jarriko zion geroxeago izena. Ustekabean liluratu zuten, halaber, tradiziozko generoen berrirakurketa modernoek. *Dona-dona* saileko liburuak edo Patxi Zubizarreta, Jokin Mitxelena eta Joserra Senperenaren *Urrezko giltza* erori zitzaizkion esku artera. Ez, horrek ez zuen zerikusirik ganbarara irribarrez igo zuen *Esaera zaharra eta txiste berriak* harekin, edo *Pernando Amezketarrarekin*. Estetika zen agian diferentea, bere zentzurik zabal eta sakonenean; baserri-usainik gabeko

Oharrak

7. Etxaniz Erle, X (2000): «Euskal Herria: aldeko literatura sistema», *CLIJ* 131, 2000-03, 68-71. 2000ko hamarkadako euskal HGLren panorama zabal bat izateko, jo *CLIJ*eko Xabier Etxanizen urteroko artikuluetara (131, 142, 153, 164, 175, 186, 197, 208, 219 eta 230 zenbakiak).





tradizioa zuen esku artean, mundu-ikuskerara eta estetika garaikide batetik hain urrun ez zegoena.

Lilura ez zen, baina, hitzekikoa soilik. Haur literatura bezala ordura artean beretzat ikusezin izandako «marrazki» horiei erreparatzen zien orain, arretaz eta miresmenez: Elena Odriozola, Eider Eibar edota Jokin Mitxelenaren perla estetikoei, esaterako, eta liburua osotasunean, objektu estetiko gisa baloratzen ikasten hasi zen 80ko hamarkada hasieran jaiotako irakurlea. Eta ilustrazioetatik albumetara egin zuen jauzi. *Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxoa*, *Nola dastatu ilargia* edo *Piztiak bizi diren lekuan* haurtzaroan irakurri izana desiratzen du orain, 30 urteak betetzera doala; inbidia punttu bat die liburu horiek eskutik eskura darabiltzaten bere ilobei. Inozo, pentsatzen du dena izango zela diferente bere belaunaldiak ere liburu horiek izan balitu eskura, ez litzatekeela irakurzaletasuna bultzatzeko programarik beharko (nahiz bitxi literarioa bailitzan gogoratzen duen, kasik nostalgiaz, *Teo*).

Izan ere, 2000ko hamarkadan, euskal haur eta gazte literaturan «dena eginda» zegoela heldu da irakurlea HGL-ra. Izenburu argia jarri zion Xabier Etxanizek 2000ko HGL produkzioaren inguruko artikuluari: «Euskal Herria: aldeko literatura sistema».⁷ Helduen literaturan 80ko hamarkadatik aurrera gertatutakoa beranduxeago baina sendo gertatu baitzen euskal HGL-n ere: sistema literarioa finkatzea. Sortuak ziren ordurako Galtzagorri Elkartea eta Behinola aldizkaria, eginak hainbat biltzar eta kongresu haur literaturaz, baita doktorego-tesiak eta artikulua akademikoak nahiz saiakerak ere. Kopurutan nabarmen egina zuen gora HGL-ren produkzioak, literatura hori sustatzeko hainbat sari eta

lehiaketa zegoen martxan, eta hemengo idazle eta ilustratzaileek jasoa zuten nolabaiteko errekonozimendua gure hizkuntzaren mugetatik haratago.

Baina, jakina, sistema finkatua izateak ez du libratzen literatura (izan haurrei zuzendua nahiz helduentzakoa) gaitz guztietatik, eta irakurleari, haur eta gazte literaturan bigarren hanka sartu ahala, argiak eta lilura ez ezik, itzalak, desengainuak eta kezkek ere etorri zaizkio batera. Haur literaturara «helduaroan» berriz hurbildu zen irakurleari egungo HGL-k jorratzen dituen gaien gaurkotasunak eta sakontasunak eman zion atentzioa; baina horrek berak, «errealismo kritikoaren» goiburupeko literaturak, bere arriskuak izan ditzakeela eta aho biko labana dela iruditzen zaio orain. Kezkatzen du, esaterako, azken urteetan haur literaturan barra-barra ageri diren pertsonaia etorkinetako asko erabat lauak, xaloak eta azpildurarik gabeak izateak eta immigrazioaren inguruko diskurtso politikoki zuzen eta inozenteak. Arduratzen du ama bi dituen haurraren inguruko liburuan idazlea istorio bat kontatzeaz ahaztu dela jabetzeak. Kezkatu bakarrik ez, amorratu ere egiten dute, aspaldiko alegien pare, irakurleari zer pentsatu behar duen eta zein ondorio atera behar dituen espreski erakusten dioten liburu eta bildumek. Larritzen du azaleko psikoliteratura pedagogikoaren bidetik haurrei irakaspenak eman nahi izateak, eta berriro ere Lertxundiren hitzetan aurkitu du irakurleak babesa: «gure eskemen araberako ulermena eta logika aplikatu nahi izaten ditugu





haurrei irakasten dizkiegun poema, kanta eta ipuinetan». ⁸ Horrela, beraz, zenbait liburutan haurrak daukan mundua ikusteko moduari helduok mundua ikusteko daukagun modua gailentzen zaio, errekurtsio literario gutxiarekin era askotako irakaspenak onartuz eta hobetsiz: guraso izatea zein zaila den eta horren aurrean umearen erantzukizuna areagotzen duten mezua, haurrari bere sentimenduak hobeto azaltzeko aholku liburuak, ume zintzo eta otzanaren manual liburuak, ezberdintasunaren apologia bidezko berdintasun aldarriak, ipuinaren amaieran lotura zuzen-zuzenik izan gabe gehigarri gisa eransten diren ohar etiko eta moraldun liburuak... Kezkatu, larritu eta amorratu egiten da literaturaren instrumentalizazio erabatekoa dakarrelako horrek guztiak, eta irakurtzearen dimentsio estetiko eta ludikoa zakurraren salara bidaltzea. Irakurketa, ezer izatekotan, jarduera sortzailea dela uste baitu irakurleak; hartzaileak ekarpenen bat egiten duen neurrian, hutsuneak betetzen dituen heinean gertatzen dela irakurketaren «mirakulua», eta halako komunikaziorik gertatzen ez denean, literaturaz ez, beste zerbaiti buruz ari garela uste baitu. Manu


Lopezi irakurri zion, bestalde, modu ezin grafikoagoan: «Haurrentzat idaztea ideologia politikoki zuzena aldarrikatzea denean».⁹

Zenbait urtez, urteko euskal HGLaren produkzioa oso-osorik irakurtzea egokitu zaio irakurleari, eta hasiera batean haur eta gazte literaturak sortutako lilura eta ikusten zion distira apaldu egin zaizkio, libururik liburu. Izan ere, azken urteetako produkzio osoa irakurtzeak ematen dion talaiatik garbi ikusten du, hau esatea politikoki zuzenegia ez dela badakien arren, argitaratzen denaren erdiak ia ez lukeela merezi argitaratzea eta bakanak direla hasierako lilura hura piztu zioten perlatxoen modukoak, urtero bakanen batzuk badiren arren (nahiz gehienak, tamalez, «betiko» idazleek sortuak izan). Ez daki ziur non, baina nonbait galbahe bat, inbutu bat jarri behar litzatekeela diotso bere buruari irakurleak. Izan ere, argialetxeen galbahea (halakorik baldin bada) laxoegia delakoan dago eta. Orokortu ezin den arren, asko direla pasea errazegi ematen duten argialetxeak; gutxiegi, bestalde, edizio-lanak behar bezala egiten dituztenak.

Galbahe faltan ikusten du, beraz, irakurleak euskal HGLren arazo handietako bat. Bistakoa iruditzen zaio argialetxeek, merkatuak ahalbidetzen dien neurrian, zabal jokatu dutela, eta, beraz, beste nonbait jarri beharko dira inbutuak. Kritikan, esaterako. Iruditzen zaio, oro har euskal literaturan gertatzen den bezala, HGLren esparruan ere kritika ausartagoaren premia gorria dagoela eta «dena ongi dabil» sindromeak ez duela askorik laguntzen luzera begira. Argitalpen kopuruak diren bezain handiak izanik, guraso, irakasle edo bitartekariei eskuartera etor dakizkiekeen liburuak hainbeste izanik, premiazkoa dela anabasa horretan pista batzuk, erreferentzia zenbait emango dituen kritika. Ez bakarrik liburu gomendagarriak saritu eta ikusaraziko dituen, baina baita gutxieneko kalitate-parametroetatik beherako liburuak kritikatu dituen ere. Argitalpen kopuru handiez ari gara, eta irizpide garbirik ezean, erraz joan litezke ahanzturaren ganbarara merezi duten aleak; eta, aitzitik, nolabaiteko erabilgarritasuna ikusi zaien liburu hala-moduzkoek erraz topa dezakete zirrikiturik (eskoletan, esaterako).

8. Lertxundi, Anjel (2009), *Eskarmentuaren paperak*, Alberdania, Irun, 20. orr.

9. Lopez, M. (2006): *Literaturak umeei begiratu zientean*, Pamiela, Iruñea.





Baina kritika serio batek ere ez lukeela, berak bakarrik, arazoa konponduko, begitantzen zaio irakurleari. Horrez gainera, liburuen eta haurren arteko bitartekari-lanetan ari direnen formazio literarioa nolabait lantzea urgentea iruditzen zaio. Galtzagorrik abian jarritako irakurketa mintegiak nahiz *Bularretik mintzora* bezalako proiektuak datozkio burura, lan eskergea eta eskergarria egiten dutenak, eta halako gehiagoren beharra nabarmena iruditzen zaio.

Izan ere, galbahe sendorik ezean, eta grina pizteko moduko liburuak hautatu ezean, nekez kutsatuko zaio inori (izan haur zein heldu) literaturarekiko lilura, efimero edo iraunkorra.

Mikel Ayerbe e Ibon Egaña: desempolvando los libros del desván

Los autores de este artículo, nacidos a principios de los años 1980, ofrecen un breve recorrido personal de la literatura infantil y juvenil de aquella década, partiendo de las lecturas que marcaron su infancia, para intentar esbozar después las características generales de la incipiente LIJ vasca de hace tres décadas: la renovación y actualización de las temáticas, el desarrollo del lenguaje literario o el hito que supusieron obras como las de Mariasun Landa, Anjel Lertxundi o Bernardo Atxaga. A su vez, el artículo señala algunas de las lagunas que, desde un punto de vista actual, se observan en la LIJ vasca de los 80: la escasez de álbumes ilustrados, la casi total ausencia de obras de género dramático y lírico o la carencia de formatos novedosos en la edición de libros infantiles. En la segunda parte del artículo, los autores narran la fascinación que les produjo el redescubrimiento de la LIJ en la edad adulta y analizan los saltos cualitativos que perciben en la literatura contemporánea vasca en comparación con la literatura que consumieron en la infancia: la diversificación de los temas tratados, las relecturas actuales de la tradición oral, la alta calidad de los ilustradores/as o el valor literario de algunos álbumes ilustrados traducidos al euskera recientemente. El artículo concluye que la LIJ vasca de la década del 2000 es una literatura que cuenta con un sistema literario consolidado, lo que no impide que sigan existiendo carencias y problemas reseñables: la dudosa calidad de parte de la producción, que ha aumentado cuantitativamente, la excesiva tendencia a lo políticamente correcto de autores y autoras actuales, la falta de una crítica más rigurosa y exigente o la necesidad de formar a los intermediarios/as de la LIJ.

Mikel Ayerbe and Ibon Egaña: dusting off the books in the attic

The authors of this article, who were born in the early 1980s, offer a brief personal tour of the LCT –literature for children and teenagers– of that decade on the basis of the reading that marked their own childhoods. They will be going on to try and outline the general features of the emerging Basque LCT of three decades ago: the renewal and updating of the subject matters, the development of literary language, or the milestone constituted by works like those of Mariasun Landa, Anjel Lertxundi or Bernardo Atxaga. At the same time, the article points to some of the gaps that from today's perspective can be seen in the Basque LCT of the 1980s: the lack of picture books, the almost total absence of works of the dramatic or literary genre, or the lack of fresh formats in the edition of children's books.

In the second part of the article the authors describe the fascination they felt when re-discovering LCT as adults, and they go on to analyse the qualitative leaps they perceive in contemporary Basque literature in comparison with the literature they consumed in their own childhoods: the diversification of the subjects handled, the current re-readings of the oral tradition, the high quality of the illustrators or the literary value of some of the picture books recently translated into Basque. The article concludes that Basque LCT of the 2000s decade is literature that has a consolidated literary system but which does not prevent the continued existence of significant lacks and problems: the doubtful quality of some of the production, which has seen a quantitative increase; the excessive trend towards political correctness by today's authors; the lack of more rigorous and more demanding criticism; or the need to train the intermediaries of LCT.